

DIGESTIO-APARATUA 2

1. Jarri ordenan egitura hauek, digestio hodiaren ibilbide naturalaren arabera.

Duodenoa, faringea, urdaila, zeharkako kolona, ahoa, piloroa, esofagoa, beheranzko kolona, ondestea, ileona, goranzko kolona, jejunoa, uzkia, kardia, heste itsua.

2. Idatzi digestio hodiaren zer atali dagozkien deskribapen hauek:

- a. Heste mehearen azkeneko atala da.
- b. Heste lodiaren atal honetan, apendizeta dago.
- c. Urdailaren irteeran dagoen balbula bat da.
- d. Haren gainazalean, dastamen papilak daude.
- e. Atal haragitsu bat da, non hortz eta hagin piezak sartzen diren.
- f. Heste lodiaren azkeneko atala da.
- g. Urdailaren sarreran dagoen balbula bat da.
- h. Haren mukosak biloak eta mikrobiloak ditu.
- i. Faringearen amaieran dagoen tolestura kartilaginosoa.

3. Idatzi, digestio hodiko zer leku zehatzetan gertatzen diren ekintza hauek.

- a. Ura eta mantenugaiak xurgatu.
- b. Mastekatu.
- c. Digestio gastrikoa
- d. Listuztatu
- e. Ura eta gatz mineralak xurgatu
- f. Irentsi
- g. Hesteetako digestioa
- h. Ingestioa
- i. Egestioa

4. Erlazionatu zerrenda honetako substantzia bakoitza digestio hodiko leku batekin.

- a. Kimoa
- b. Elikadura boloa
- c. Kiloa
- d. Gorozkiak
- e. Behazuna
- f. Listua
- g. Urin pankreatikoa
- h. Urin gastrikoa

5. Lotu bi zutabeetako kontzeptuak

- | | |
|-------------------|--|
| a. Listua | g. Amilasa du, gluzidoak digeritu |
| b. Behazuna | h. Behazuna sintetizatu |
| c. Pankrea-urina | i. Behazuna kanporatu, gantzen digestioa erraztu |
| d. Gibela | j. Pepsina eta HCl, proteinen digestioa |
| e. Urin gastrikoa | k. Amilasak, proteasak eta lipasak, duodenora |
| f. Heste-urina | l. Duodenoko mukosak jariatu. Amilasak, proteasak eta lipasak. |